

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Errenteriako Udala

Ayuntamiento de Errenteria

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	8
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	8
III.BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	9
III.1 Aurrekontua eta Kontabilitatea.....	9
III.2 Langileria.....	10
III.3 Kontratazioa.....	11
III.4 Transferentziak eta Diru-laguntzak	12
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak.....	13
IV. FINANTZA ANALISIA	14
V. URTEKO KONTUAK	17
V.1 Udala.....	17
V.2 Erakunde Autonomoa.....	20
V.3 ERRENTERIA GARATUZ, SA.....	22
ERANSKINAK	23
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria	23
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	23
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	24
A.4 Transferentziek, diru-laguntzek eta beste sarrera batzuek eragindako sarrerak	25
A.5 Langileria-gastuak.....	26
A.6 Ondasun arruntetan eta erosketan eta zerbitzuetan gastuak	28
A.7 Emandako transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	30
A.8 Aurrekontuko zordunak.....	32
A.9 Balantzeko beste saldo batzuk. Zorpetzea.....	32
A.10 Erakunde autonomoak	34
A.11 Kontratazioaren analisia.....	37
ALEGAZIOAK	39



ABREVIATURAS	55
I. INTRODUCCIÓN	57
II. OPINIÓN.....	58
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD	58
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	58
III.CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	59
III.1 Presupuesto y contabilidad	59
III.2 Personal.....	62
III.3 Contratación	63
III.4 Transferencias y subvenciones.....	62
III.5 Morosidad y otros aspectos	63
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	64
V. CUENTAS ANUALES	67
V.1 Ayuntamiento.....	67
V.2 Organismos Autónomos	70
V.3 Errenteria Garatuz, SA	72
ANEXOS	73
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	73
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	73
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	74
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	75
A.5 Gastos de personal	76
A.6 Gastos en bienes corrientes y servicios e inversiones	78
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	80
A.8 Deudores presupuestarios.....	82
A.9 Otros saldos del Balance. Endeudamiento.....	82
A.10 Organismos Autónomos	84
A.11 Análisis de contratación	87
ALEGACIONES	89



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

BEZa	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia.
EAOL	3/2017 Legea, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Errenteriako Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Errenteriako Udalaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio lana 2000ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren, bere erakunde autonomoen eta Udal sozietatearen aurrekontuko balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzen kontuak, memoriak eta likidazioak besarkatzen ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza-analisia.

Errenteriako udalerriak 39.439 biztanle zituen 2017ko urtarrilaren 1ean eta Udalean, udal administrazioaz gain, honako erakunde hauek besarkatzen ditu:

- Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitzako Patronatua Erakunde Autonomoa.
- Errenteria Musikal Patronatua Erakunde Autonomoa.
- Errenteria Garatuz, SA udalerrriaren sustapen urbano eta ekonomikorako sortua.

2017an udal sozietatearen aktibo eta pasiboen eskualdatzea osatu da eta kapitala murriztu du gainera.

Gainera, Añarbe eta San Markoko Mankomunitateen partaide da eta Eresbil Fundazioan eta Oarso Aldea, SA sozietatean esku hartzen du (% 25).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Errenteriako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak eta bi erakunde autonomoek ez dute ibilgetuan eragina duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez dute ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehakapenik, ez amortizaziorako zuzkidurarik egiten, higiezinetakako inbertsioentzat izan ezik. Horregatik guztiagatik, ezin esan daiteke Udalaren Balantzeko Ibilgetu, Lurraren ondare publiko eta Finantza-inbertsioen saldoek, guztira 188,4 milioi euroren zenbatekoa egiten dutenek, eta bi erakunde autonomoen Ibilgetuko saldoek, 4,8 eta 0,2 milioi eurorenak, islatzen duten Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasun eta eskubideen egiazko egoera 2017ko abenduaren 31n.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Errenteriako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere jaso dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Kredituak 2017ko aurrekontura txertatzeko espedientean 2015 eta 2014ko kredituak barne hartu ziren, 325.128 euroren zenbatekoan; ordea, horiek ezin ziren hor jaso araudiak mugatu egiten dituelako txertaketa jarraituak. Aurreko urteko gastu arruntetarako kredituak ere barne hartu ziren, konprometitu ez zirenak, 99.541 euroren zenbatekoan.
- 2. kapituluan sailkatzen dira San Markoko Mankomunitateari egindako 1,5 milioi euroren ekarpenak, tratatzeko emandako tona hondakinen arabera kalkulatuak, nahiz mankomunitateko estatutuek banaketarako irizpide bakar modura biztanle kopurua bereizten duten.
- Gastuen 4. kapituluko aitortu gabeko konpromisoen saldoa (D-O), 272.623 eurorena, likidatzeko dauden emandako diru-laguntzei dagokie. Urteko itxiera prozesuetan diru-laguntza hauek kitatzeko epeak mugatzea komeniko litzateke, saldoaren zenbatekoa minimizatzeko.
- Kontu Orokorrean barne hartutako Memoriak honako alderdi hauen berri eman beharko luke:
 - a) Aldez aurretik jubilatzen den langileriarri gizarte-prestazioengatikoko kontingentzia. 2017an 11 langileri 318.293 euroren erretiro-sariak ordaindu zitzaizkien (ikus A.5 eta A.10).
 - b) Kirol-instalazioak erabiltzeagatikoko tasaren eta udal autobusen tasaren diru-bilketa, 2017an hurrenez hurren 1,8 milioi euro eta 405.744 euro egin duena, kontratisten ordainketari aplikatzen zaio, gastuak eta sarrerak berdinduz.
- Udalak ez ditu premiamenduko zorren berandutza-interesak likidatzen, 2017ko abenduaren 31n 3,5 milioi euro egin zutenak.

Erakunde autonomoak eta sozietate publikoa

- Bi erakunde autonomoen estatutuek erakundeetako langileei esleitzen dizkiete idazkari, kontu hartzaile eta udal diruzaintzat gordetako egitekoak.
- Errenteria Musikalek ez zu langileen eranskina eta ekonomia- eta finantza-txostena barne hartzen. Kontu Orokorrean ez zen ez Memoria ez banku-saldoen ziurtagiririk jaso.



- Errenteria Garatuz, SAK kapitala murriztu zuen 2017an eta jarduera Udalari eskualdatzeko prozesua osatu zuen, zenbait saldo erregularizatu zituela. Eragiketa hauek egin ostean, ondarea zero euroan gelditu zen eta merkataritzako araudiaren arabera, desegiteko kausa sortuz.

III.2 LANGILERIA

- Udalak eta bi erakunde autonomoek 2017an ordainsariak % 1 igo zituzten, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak baimentzen duen gehiena. 2017rako aurrekontuak igoera hori egiteko aurreikuspena jasotzen zuen, baina aplikatu ahal izateko Udalbatzak berariaz onartu behar du. Gainera, soldata igoera aplikatzea onartu zuen ebazpenari publikotasuna eman behar zitzaiokeen. Baita, 2008-2010eko Udalhitzi dagokionez 2008an onartu eta fiskalizazio-gai izan den ekitaldian indarrean zeuden hobekuntzei ere.
- Udalak 2017an produktibitate-osagarri bat onartu zuen, 295.498 euro egin zituena, Udalbatzak 2016an onartu eta urte hartako % 2,5eko ordainsarien pareko dena. Osagarria langile guztiei ordaindu zaie, bakoitzaren soldata eta lan egindako egunen arabera, guztiek esku hartu dutela iritzi baitzaio kudeaketako eta legegintzaldiko planen garapenean. Ez dira, baina, langile bakoitzaren etekina, interesa edo ekimena eta eskuratutako emaitzak balioztatu. Gainera, 2016an kontzeptu honegatik 283.720 euro ordaindu ziren eta 2017an Udalbatzak osotara 350.000 euroren diru-izendapena onartu du, txosten hau idatzi dugun datan likidatu gabe dagoena.
- Udalak 2017ko lanpostu-zerrenda onartu zuen, aurrekoaren aldean aldaketak zituena; aldaketa horiek espedientean xehakatu baziren ere, ez ziren berariaz onartu, ezta argitara eman ere. Gainera, sortze berriko 11 lanposturen kasuan, espedientean esleitutako maila eta osagarrien justifikazioa txertatu behar zatekeen.
- 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden 1985 eta 2010 bitartean formalizatutako aldi baterako 15 kontratu. Kontratuen iraupenak erakusten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, egoera hori zuzendu egin behar da.
- Udalaren aurrekontuko plantillak diru-izendapena duten lanpostuak eta horien ordainsari oinarritutakoak eta osagarriak zerrendatzen ditu, azken hauek xehakatu gabe.
- Aparteko ordainsarien banakako izendapena alkateak edo eskuordeko zinegotziak onartu beharko luke; 2017an ordainsari horiek 121.123 euro egin dute.
- Udalak ez ditu aitortzen zerga-ondorioetarako langileei ordaintzen dizkien espeziezko ordainsariak, bizitza-aseguruak eta langileei emandako maileguak, nagusiki.
- 2017an Udalak aldi baterako 15 administrari laguntzaile kontratatu zituen 2011ko hautaketa-prozesu batean osatutako zerrenda baliatuta; zerrenda gaurkotzea komeniko litzateke. Askotariko kategorian profesionalen beste 15 kontrataziotan 2000 eta 2011 artean osatutako lan-poltsak baliatu ziren.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erakunde Autonomoak

- 2008an Errenteria Musikaleko Zuzendaritza Batzordeak Udalhitzera atxikitzea onartu zuen, 38 irakasleen lan-baldintza onuragarrienei eutsiz eta erabakian zehaztu eta argitara eman gabe. Alde nagusia da ikastetxean urtean egiten den presentziatzko lanaldia, Udalhitzaren aldean urteko 150 ordu gutxiagokoa.
- Udal Egoitzaren onartutako 2017ko lanpostu zerrenda espedientearen justifikatu ez ziren aldaketak gehitzen zituen (2 lanpostu amortizatu). Errenteria Musikalen lanpostu-zerrendak 3 lanpostu jasotzen ditu ez dagozkienak bereizitako lanpostuei, baizik eta aldi baterako beste lanpostu batzuetako jabeei esleitzen zaizkien koordinazio egitekoei.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 7 kontratu nagusiak aztertu ondoren -36,2 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.11):

- Guztira 30,9 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan (1, 2, 3, 6 eta 7 espedienteak) esleipen-irizpide orokorrak baliatu ziren, balioztatuko liratekeen alderdiak eta/edo baloraziorako aplikatu beharreko sistema zehaztu gabe (A1 akatsa).
- Guztira 32,2 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan (1etik 4rako eta 7 espedienteak) behin betiko bermea urteko baten zenbatekoa abiaburu hartuta kalkulatu zen, guztira esleitutako zenbatekoa aintzat hartu beharrean (A2 akatsa).
- Bi kontraturen esleipena/formalizazioa (1 eta 7 espedienteak), 6,1 milioi euroren zenbatekoan, ez zen aldizkari ofizialean argitara eman. 7. espedientearen ez zegoen jasoa lehiatzaileei jakinarazpena bidali zitzaizkien (B1 akatsa).
- Zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu modura kalifikatu zen kale-garbiketa eta zabor-bilketa zerbitzua; ordea, arriskuko osagarririk ez izateak zerbitzu-kontratutzat hartzeraz derrigortzen du eta iraupenaldia gehienez 6 urtetara mugatzen. Honez gain, esleipena proposamenen irekiera egin eta 4 hilabetetara gauzatu zen, araudiak gehienera 2 hilabeteko epea aurreikusten duenean (C akatsa).
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren lehiatzaileek aurkeztutako proiektuak baloratu zituen txosten teknikoak hiru irizpide nagusien puntuak adierazi zituen, baina ez zuen 9 azpi-irizpideen balorazioa zehaztu, ezta emandako puntuazioak arrazoitu ere (C akatsa).

Alderdi orokorrak eta erorsketa txikiak

- Kontratu batean prezioa balioztatzeko baliatutako formulak mugatu egiten zituen eskaintako merkatzeak eta beste 2 kasutan proportzionaltasun soileko formula baliatu zen, faktore honen egiazko balioa murrizten duena, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez.
- Hobekuntzak baloratzen diren kontratuetan, komeniko litzateke kontratuan berariaz jasotzea eta aldi behin horiek kontrolatzea (1etik 4rako espedienteak eta 7).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Udalak 2016an kontratazio-eremuko fiskalizazioa baldintza hauek egiaztatzerara mugatu zuen: krediturik bazela; kontratazio-atalaren gaitasuna eta plegua, irizpideak eta prozedura araudira egokitzea; egiaztatze hauen ondorioa espediente baimendu aurreko aginduzko txostenean jaso behar litzateke. Halaber, fiskalizazio mugatuari buruzko udalaren erregulazioa osatu egin behar litzateke honako hauen egiaztatzeak eginez: kontratuen esleipena; lehia erregimenean eman beharreko diru-laguntzak; eta langileen altak.
- Beste erosketa batzuk aztertzean ikusi da kontratuak zuzenean esleitu direla, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu beharrean (ikus A.11):

	Euroak milakotan
Erakundea eta kontratuak	2017ko gastua
Udala: 3 zerbitzu-kontratu eta 2 hornidura	146
Udal egoitza: Hornigaien 2 kontratu.	56

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Oarso Aldea, SArri industria-lurra sustatzeko emandako 68.020 euroren diru-laguntza oinarritzen da Udalbatzak 1997an onartutako hitzarmen batean. Hitzarmen honek jasotzen zuen 50 urtetan programa bidez garatutako poligonoen JEZ sarreraren % 50en ordainduko zela. Hitzarmenak zehazten zuen udal-ekarpenak orekatu egingo zirela sozietatearen inbertsioekin; ordea, udalak ez du zehaztapen hori egiaztatu eta honenbestez, Udalak hitzarmena kitatu behar du udal ekarpenen destinoa egiaztatuta.
- Eresbil Fundazioari emandako 125.500 euroren diru-laguntza izendunaren emakidabazpenak ez zuen zehazten ez diru-laguntzaren xedea, ez epea eta justifikatzeko moldea ere; halaber, ez zuen ordainketa aurreratzeko beharra ere justifikatzen. Gainera, diru-laguntzen Plan Estrategikoan barne hartu behar litzateke eta baita Oarso Aldea, SArri egindako ekarpena ere.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzen prestazioak -2017an 89.240 euroren kostua izan dutenak- osagarritzen dituen udal-programa ez da ordenantza bidez arautu eta banako laguntzak eman zaizkie 124 hartzaileei, arautu eta argitara eman behar liratekeen irizpideen arabera.
- Kultura-aniztasunari buruzko sentsibilizazio-ekintzen 5 proposamenak balioztatzean ez ziren aintzat hartu deialdian aurreikusitako 14 irizpideetatik 5 eta deialdi honetan aurreikusi gabeko beste 3 irizpide jaso ziren; honen bidez 22.760 euroren diru-laguntzak esleitu ziren.
- Udalbatzak 2017ko irailean onartu zuen garabi eta TAOko zerbitzu berreskuratu eta 14 langile Birkolokatzeko Plana, baldin eta kontratistek euren kontratuak etetea erabakiko balute; kostuaren balioespina 325.000 eurorena da. Erabakia hartu zen aurrekontuan izango zuen eragina aintzat hartu gabe eta zegokion urte anitzeko aurrekontua onartu gabe. Erabaki hau garatzeko garabiko 5 langileak hartzen zituen hitzarmen bat izenpetu zen Oarso Aldea, SArriekin eta Planaren kostua 115.786 euroan zenbatetsi zen. 2017an



32.357 euroren gastua aitortu zen ondorengo urteetarako hartutako konpromisoa islatu gabe. Honez gain, hitzarmenak enpresei 90.000 euroren diru-laguntzak ematea aurreikusten zuen; esan behar da, ordea, esleipena Udalak egin behar duela.

III.5 BERANKORTASUNA

- Ordainketa epeen gaineko hiruhileko txostenek erakusten dute Udalak 2017an egindako ordainketen % 6,75ek finkatutako epea gainditu zuela (30 egun onartu zenetik). Ehuneko hori % 9,48 da Musika Eskolan; Udal Egoitzak, berriz, 2017an ordainketa guztiak epean egin zituen.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua:

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakoetan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015(*)	2016(*)	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1., 2. eta 3. kap.)	18.503	18.285	19.008	470	464	483
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	25.602	26.587	27.625	650	674	701
Ondare sarrerek (5. kap.).....	603	566	585	15	14	15
A. Diru-sarrera arruntak	44.708	45.438	47.218	1.135	1.152	1.199
Langileria-gastuak (1. kap.).....	15.115	16.044	16.686	384	407	424
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	15.919	17.185	16.710	404	436	424
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	6.509	6.630	6.886	165	168	175
B. Funtzionamendu gastuak	37.543	39.859	40.282	953	1.011	1.023
Aurrezki gordina (A-B)	7.165	5.579	6.936	182	141	176
- Finantza gastuak (3. kap.).....	258	211	160	7	5	4
Emaidza arrunta	6.907	5.368	6.776	175	136	172
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	2.601	2.415	2.142	66	61	54
Aurrezki garbia.....	4.306	2.953	4.634	109	75	118
Inbertsioen besterentzea (6. kap.).....	2	8	989	-	-	25
Jasotako kapitaleko diru-laguntzak (7. kap.).....	2.375	1.401	1.263	60	36	32
- Inbertsio erreralak (6. kap.).....	(6.854)	(3.993)	(5.003)	(174)	(101)	(127)
- Emandako kapitaleko diru-laguntzak (7. kap.).....	(129)	(88)	(92)	(3)	(2)	(2)
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(4.606)	(2.672)	(2.843)	(117)	(67)	(72)
Eragiketa ez finantzar. emaitza (1etik 7rako kap.).....	2.301	2.696	3.933	58	69	100
Diruzaintza geldikin likidoa.....	6.515	8.930	12.978	165	226	329
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina.....	5.465	7.939	11.540	139	201	293
Zorpetzea 31.12n.....	13.624	13.446	13.404	346	341	340

(*) HKEEk fiskalizazio gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 5,6 egin dute gora 2015eko urtearekiko.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 2,7 egin zuten gora eta azpimarratzekoak dira eraikuntzen gaineko zergetan eta zabor-bilketa eta estolderia-tasetan izandako hobekuntzak. Kontrara, behera egin dute honako zerga hauen sarrerek: lursailen balio igoeraren gaineko zergak; jabetza publikoaren erabilera pribatuagatik zerbitzu-enpresei jasanarazitako tasak eta TAO zerbitzuaren zergak, zeinak konfigurazioa 2017an aldatu baitzuen.
- **Transferentziak eta diru-laguntzak:** Hauek ere % 7,9 egin dute gora 2015-2017 aldian, osagai nagusiak gora egin duelako, Udal Finantzaketarako Foru Funtzak alegia (% 7), gizarte-ongizateko laguntzez gain.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Funtzionamendu gastuak: % 7,3 egin dute gora 2015 eta 2017 bitartean, ondoko xehakapenarekin:

- **Langile-gastuek** % 10,4 egin zuten gora 2017 eta 2015 bitartean, arrazoi hauengatik: soldata % 2 igo izana; 2017an % 2,5eko produktibitate-osagarria ordaindu izana; erretiro-sariak handitu izana; eta aldi baterako eta bitarteko langileen kontratazio gehiago egin izana.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak** % 5 hazi ziren 2015eko aldean eta azpimarratzekoak dira azpiegiturak konpondu eta zaintzeko kontu-sailetan izandako igoerak eta bide-garbiketa eta zabor-bilketa zerbitzuan izandakoak.
- **Transferentzia eta diru-laguntzek** % 5,8 egin zuten gora, nahiz Kirolaren Patronatuari egindako transferentziak desagertu ziren, 2016an udal administrazioan integratu zelako. Kontrara, Erretereria Musikali egindako transferentziek gora egin zuten eta San Markoko Mankomunitateko erosketen kapitulutik eskualdatu ziren. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ere gailentzen dira, 2015ekoak halako bi izan baitira.

Aurrezki gordina: erakundearen autofinantzaketa-maila neurtzen duen aldaki hau 2015ean sarrera arrunten % 16 zen eta zertxobait egin du behera hirurtekoan; honenbestez, Udalak 2017an sarrera arrunten % 14,7 izan zuen finantza zamari aurre egiteko eta inbertitzeko.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: finantza zamak behera egin du hirurtekoan eta aurrezki gordinaren herena behar du 2017an; honela, bada, inbertsioak finantzatzeko aurrezki garbi erabilgarria sarrera arrunten % 9,8 izan da 2017an. Zorpetzeak zertxobait egin du behera eta 2017an Udalaren sarrera arrunten % 28,4 izan zen.

Kapital eragiketen emaitza: aldi honetan egindako inbertsioak, 15,8 milioi euro, sarrera arrunten % 11,5 izan dira. Udalaren baliabideekin finantzatu dira nagusiki, nahiz kapitaleko diru-laguntzak inbertsio horien % 32 izan diren.

Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina: bikoiztu egin da 2016 eta 2017an sortutako aurrezki garbiak kapitaleko eragiketen emaitza 2 milioi euroan gaintu duelako eta 4,3 milioi euroren maileguak erabili direlako, aurretik zuten zorpetze-mailari eustea erabaki izanaren ondorioz.

Ondorioa: Aztergai izan den aldiaren sarrera arrunten hobekuntzak funtzionamendu-gastuen igoerari aurre egitea bideratu du, sortutako aurrezki maila gehitxo eragin gabe. 2017ko abenduaren 31ko geldikinak gaintu egin du hirurtekoako kapitaleko eragiketen emaitza. Zorpetzeari bagagozkio, sarrera arrunten % 28,4 inguru egin du, EAEko udalen batez bestekoa baino handiagoa (% 18,5, 2016an).



Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu Hartze atalak egindako txostenak dio aurrekontuaren egonkortasunaren arautegia bete dela likidazio kontsolidatuari dagokionez, eragiketa ez finantzarioetan superabita izan delako eta Udalaren zorra kontsolidatutako sarrera arrunten % 30 izan delako. Gastuaren arauari dagokionez, % 2,8 igo zen, % 2,2ko mugaren gainetik, baina 2017ko ekainean onetsi zen 2017-2020 Ekonomia eta Finantza Planak aurreikusitako mugen barruan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2017-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			SARRERAK	KOB.R.	KOB.R. GABEA	% (*) EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Zerga zuzenak	A.3	10.169	-	10.169	9.893	9.376	517	97
2.- Zeharkako zergak	A.3	300	-	300	492	321	171	164
3.- Tasak eta bestelako sarr.....	A.3	8.238	2	8.240	8.623	7.073	1.550	105
4.- Transferentzia arruntak.....	A.4	27.646	13	27.659	27.625	26.979	646	100
5.- Ondare sarrerak	A.4	677	-	677	585	523	62	86
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.4	1.860	-	1.860	989	989	-	53
7.- Kapitaleko transferentziak	A.4	1.372	98	1.470	1.263	1.008	255	86
8.- Finantza aktiboak	A.4	50	7.623	7.673	355	345	10	710
9.- Finantza pasiboak	A.9	2.100	2.304	4.404	2.100	2.100	-	48
SARRERAK GUZTIRA		52.412	10.040	62.452	51.925	48.714	3.211	95

(*) Egikaritzaren % kalkulatzean, baliatutako geldikinak deduzitu dira, 7,6 milioi euroren zenbatekoan.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			GASTUAK	ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Langileria-gastuak.....	A.5	16.971	456	17.427	16.686	16.652	34	96
2.- Ondasun arrunten eta zerb. kontrat.....	A.6	18.499	125	18.624	16.710	14.877	1.833	90
3.- Finantza gastuak.....	-	266	(25)	241	160	160	-	67
4.- Transferentzia arruntak.....	A.7	7.920	48	7.968	6.886	6.675	211	86
6.-Inbertsio errealak	A.6	6.488	9.436	15.924	5.003	4.457	546	31
7.- Kapitaleko transferentziak	-	92	-	92	92	63	29	100
8.- Finantza aktiboak	-	50	-	50	18	18	-	35
9.-Finantza pasiboak	A.9	2.126	-	2.126	2.142	2.142	-	101
GASTUAK GUZTIRA		52.412	10.040	62.452	47.697	45.044	2.653	76
SARRERAK - GASTUAK					4.228			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.		KOB.R./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
	ZORRA	BALIOG.		
Zordunak	5.630	(287)	3.174	2.169
Hartzekodunak	3.110	1	3.109	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA		(286)		



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak	51.925
Obligazio aitortuak	47.697
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	4.228
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(286)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	3.942
Finantzaketako desbideratzeak	(245)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	2.744
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	6.441

DIRUZAINZA-GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 2017.1.1ean	8.929
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza	3.942
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak	107
DIRUZAINZA-GELDIKIN LIKIDOA 2017.12.31-N	12.978
Diruzaintza	11.536
Aurrekontuko zordunak	5.380
Aurrekontuz kanpoko zordunak	2.249
Aurrekontuko hartzekodunak	(2.653)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(1.438)
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(2.096)
DIRUZAINZA-GELDIKIN LIKIDOA 2017.12.31-N	12.978
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-Geldikina A.4	1.438
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	11.540
ZORPETZEA 17.12.31N	13.404

KONPROMISO-KREDITUAK	Euroak milakotan			
	Hasierako aurrek.	Alda-keta	Azken aurrek.	Hitzar-tutakoa
Kultura-ekipamenduak: Lekuona zentroa	1.500	1.900	3.400	-
Plan Orokorra idaztea eta bst. inbertsio batzuk	300	73	373	7
GUZTIRA			3.773	
2018ko aurrekontua			3.023	
2019ko aurrekontua			750	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		193.564	183.270	ONDARE GARBIA		186.433	174.553
Ibilgetu ukiezina.....		6.112	5.307	Ondarea		70.214	70.214
Ibilgetu materiala		160.097	156.799	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		107.918	97.629
Ibilgetuko inbertsioak.....A.9		5.197	5.367	Ekitaldiaren emaitza.....		5.928	5.449
Lurraren ondare publikoa.....		16.500	15.737	Jasotako diru-lag, emaitz. erreg. gab.....		2.373	1.261
Epe luz. finantza inbertsioak		5.658	60				
				PASIBO EZ-ARRUNTA		18.198	16.955
				Epe luzeko zorrak bankuei	A.9	11.417	11.309
				Hartzekod. eta e/luz. bst kontu batz.....	A.9	1.618	387
				Aldizkakotzeagatikoko doiketak. epe/luz.	A.9	5.163	5.259
AKTIBO ARRUNTA		18.107	16.390	PASIBO KORRONTEA		7.040	8.152
Salgai dauden aktiboak.....		147	147	E/lab. zuzkidurak.....	A.9	900	-
Kudeaketa eragiketeng. zordunak ..A.8		3.273	3.414	Epe laburreko banku-zorrak.....	A.9	1.987	2.136
Kobratzeko beste kontu batzuk	A.9	1.134	899	Hartzekodunak eta bst.zor batz.	A.9	4.070	5.933
Epe lab. finantza inbertsioak	A.9	2.017	3.356	Aldizkakotzeagatikoko doiketak. epe/lab.	A.9	83	83
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk.....		11.536	8.574				
AKTIBOA, GUZTIRA		211.671	199.660	PASIBOA GUZTIRA		211.671	199.660

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2017 ETA 2016

Euroak milakotan

	2017	2016
Zergak.....	10.355	10.065
Tasak.....	7.476	7.394
Hirigintzako sarrerak.....	21	8
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	27.765	26.726
Salmentak eta zerbitzuen emakida	33	30
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....	1.426	1.257
KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	47.076	45.480
Langileria-gastuak	(17.671)	(16.120)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(6.978)	(6.717)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(17.012)	(17.206)
Ibilgetua amortizatzea	(169)	(169)
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(41.830)	(40.212)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	5.246	5.268
Balio-narriadura eta ibilgetu finan. besterentz. emait. eta salgai daud. aktib.	438	-
Arruntak ez diren beste kontu-sail batzuk.....	257	519
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	5.941	5.787
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(13)	(338)
EKITALDIAREN EMAITZA	5.928	5.449



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSKINA	EGOITZA		E.MUSIKAL	
		Has.aurr.	Sarrerak	Has.aurr.	Sarrerak
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.10	1.616	1.762	280	273
4.- Transferentzia arruntak.....	A.10	4.056	3.958	1.787	1.825
7.- Kapitaleko transferentziak	-	40	40	8	8
GUZTIRA		5.712	5.760	2.075	2.106

GASTUAK	ERANSKINA	EGOITZA		E.MUSIKAL	
		Has.aurr.	Gastuak	Has.aurr.	Gastuak
1.- Langileria-gastuak.....	A.10	765	672	1.863	1.893
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.....	A.10	4.907	4.873	134	119
4.- Transferentzia arruntak.....	A.10	-	-	70	70
6.-Inbertsio errealak	-	40	62	8	8
GUZTIRA		5.712	5.607	2.075	2.090
SARRERAK - GASTUAK			153		16

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	EGOITZA	E.MUSIKAL
ZORDUNAK		
Hasierako zorra	373	212
Kobrantzak	(373)	(208)
Amaierako zorra	-	4
HARTZEKODUNAK		
Hasierako zorra	777	25
Ordainketak	(777)	(25)
Amaierako zorra	-	-

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	EGOITZA	E.MUSIKAL
Eskubide kitatuak.....	5.760	2.106
Obligazio aitortuak.....	5.607	2.090
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	153	16
AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN EMAITZA	-	-
EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	153	16
Diruzaintza gaindikinarekin finantzatutako gastuak.....	10	34
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	163	50



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan	
	EGOITZA	E.MUSIKAL
Diruzaintza geldikin likidoa 17.1.1ean	99	87
Aurrekontuaren emaitza	153	16
DIRUZAINZA-GELDIKIN LIKIDOA 17.12.31N	252	103
Diruzaintza	920	78
Aurrekontuko zordunak	386	293
Aurrekontuko hartzekodunak	(765)	(32)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(289)	(235)
Kaudimengabeziatarako zuzkidura	-	(1)
DIRUZAINZA-GELDIKIN LIKIDOA 2017.12.31N	252	103
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina-		-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	252	103

BALANTZEA 2017KO ABENDUAREN 31N	Euroak milakotan	
	EGOITZA	E.MUSIKAL
AKTIBO EZ ARRUNTA	4.830	234
Ibilgetu materiala	4.830	234
AKTIBO ARRUNTA	386	292
Ekitaldiko zordunak	145	292
Ente publiko zordunak	241	-
FINANTZA KONTUAK	920	78
AKTIBOA	6.136	604
ONDARE GARBIA	5.082	337
Ondarea	181	154
Aurreko ekitaldietako emaitzak	4.806	162
Ekitaldiaren emaitza	95	21
PASIBO ARRUNTA	1.054	267
E/laburreko zorrak	-	4
Indarreko ekitaldiko hartzekodunak	752	28
Erakunde publiko hartzekodunak	46	89
Aplikatzeke dauden sarrerak eta beste zor batzuk	256	146
PASIBO	6.136	604



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUAK 2017		Euroak milakotan	
	EGOITZA	E.MUSIKAL	
Negozio zifraren zenbat. garbia.....	1.747	273	
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	3.958	1.838	
Kudeak. beste sarrera batzuk	14	-	
SARRERAK	5.719	2.111	
Erosketak	415	-	
Langileria-gastuak	673	1.898	
Kanpoko zerbitzuak	4.457	123	
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	-	69	
Amortizaziorako zuzkidura.....	79	-	
GASTUAK	5.624	2.090	
Emaita: (Galera)/Mozkina	95	21	

V.3 ERRETERIA GARATUZ, SA

EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	-	-	ONDARE GARBIA	-	257
			Kapitalekoak.....	250	1.100
			Erreserbak.....	(839)	(1.432)
			Bazkideen beste ekarpen batzuk	592	592
			Aurreko ekitaldietako ondorioak	(3)	-
			Ekitaldiaren emaitza.....	-	(3)
AKTIBO ARRUNTA	-	272	PASIBO ARRUNTA	-	15
Salmenta-bezer. eta zerbitzu emakida.....	-	14	E/lab. zuzkidurak.....	-	4
Zordunak (Erretereriako Udala).....	-	191	Bestelako hartzekodunak	-	11
Bestelako zordunak.....	-	52			
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk.....	-	15			
AKTIBOA GUZTIRA	-	272	PASIBOA GUZTIRA	-	272

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2017 ETA 2016		Euroak milakotan	
	2017	2016	
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	-	-	
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	-	(3)	
USTIAPENAREN EMAITZA	-	(3)	
EKITALDIAREN EMAITZA	-	(3)	



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Errenteriako Udala toki erakundea da, Udal Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko Legeak arautzen duena, 57/2003 Legeak, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoak eta 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak aldarazitakoa; baita 2/2016 Legeak ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak.

Aurreko arategiak udalek dituzten eskumen edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak, e.a.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerbitzu jakin batzuen zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare sarrerak, diru-laguntzak eta kreditu eragiketak.

Ekitaldian ezargarria den ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau izan da:

- 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2017ko abenduaren 20ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2017ko urtarrilaren 13an eman zen argitara.

Ondoren, 2017ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kreditu txertaketa	Kreditu gehigarria	Kreditu gehik.	Transferentziak		
				+	-	GUZTIRA
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	-	-	2	-	-	2
4. Transferentzia arruntak	-	-	13	-	-	13
7. Kapital transferentziak.....	-	-	98	-	-	98
8. Finantza-aktiboen bariazioa: Geldikina	3.729	3.894	-	-	-	7.623
9. Pasibo finantzarioak	2.304	-	-	-	-	2.304
SARRERAK GUZTIRA	6.033	3.894	113	-	-	10.040
1. Langileria-gastuak	456	-	-	-	-	456
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	247	155	15	63	(355)	125
3. Gastu finantzarioak	-	-	-	-	(25)	(25)
4. Transferentzia arruntak	278	-	-	127	(357)	48
6. Inbertsio errealak.....	5.052	3.739	98	803	(256)	9.436
GASTUAK GUZTIRA	6.033	3.894	113	993	(993)	10.040

15 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 19 gehitu dute. Aurreko urteetako diru-izendapenak baliatu ziren, 2,8 milioi eurorenak, Lekuona kultur etxerako; gainera, xede bererako 1,5 milioi euroren kreditu gehigarria onartu zen.

2017ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2018ko martxoaren 23ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2018ko uztailaren 17ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Ondoren, Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehazten dira:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Diru-sarrera
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	6.340
Trakzio mekanikodun lbigailuen gaineko zerga.....	2.224
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	614
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera.....	715
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	9.893
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	492
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	492
Zabor-bilketa	2.275
Ur-hornidura eta estolderia (2016ko azken hiruhilekoa eta 2017ko hiru lehenengoak)	2.921
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak	126
Egoiliarren TAO txartelak.....	543
Jabari publikoaren erabilera pribatua-terrazak, aldamiok.....	112
Ibiak.....	209
Aurreko urteetako itzulketak	250
Bide publikoa okupatzea telefono eta elektrizitate eta gas hornitzaile diren enpresek	676
Isunak	334
Premiamendu gainkargua	146
Bestelako sarrerak eta beste tasa txikiago batzuk.....	1.031
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	8.623
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	19.008



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIEK, DIRU-LAGUNTZEK ETA BESTE SARRERA BATZUEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2017an transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoek eragindako sarrerak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEKOAK
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA		
UFFF-Itunpeko zergetan partaidetza 2017	23.601	-
UFFF-aparteko ekarpena Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakietarako	1.502	-
Etxerako laguntza zerbitzua	733	-
Gizarte-zerbitzu berrietarako funtsa	195	-
Udal egoitzaren defiziterako ekarpena (% 15)	257	-
Pasaialdea onera ekartzea Alabergako igogailua, herriko argiak eta beste	-	858
Eskola-kirola, gazteria, gaikako bilketan inbertsioa eta beste	181	85
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA		
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak 2017	519	-
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak: 2016ko likidazioa	124	-
HABE-Udal euskaltegia	330	-
Lanbide: langabetuak kontratatzea	87	-
Alabergako igogailuak	-	105
IVAP-prestak., bake-epaitegia, eskoletako obrak, argiteria-lanak, etab.	49	190
BESTELAKOAK		
Zerga ez itunduen partaidetza eta Herribusen inbertsioak	47	25
GUZTIRA	27.625	1.263

Udalak zerga itunduetan parte hartzeagatiko diru-sarrerak (Udal Finantzaketarako Foru Funtsa) 2017ko konturako entzegei dagozkie eta urte horretako likidazio negatiboari, 1,5 milioi euroren zenbatekoan. Azken hau berdindu zen GFAk Kupoaren Bitariko Batzordeak 2017an hartutako erabakietatik eratorritako aparteko diru-sarreretako partaidetzarekin.

Ondoren, 2017ko abenduaren 31ko finantzaketa-desbideratzeak xehakutzen dira, helburudun sarreren arabera, osorik finantzaturako jarduerarako erabili ez zirenak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Zenbat.	
Lanbide: langabetuak kontratatzea	87	
Gaztaño Berri Urbanizazioa (2010eko urbanizazio kuoten sarrera)	601	
Norbanako baten herentzia (2016 eta 2017ko 8. kap. sarrerak)	506	
Lekuona Zentroa (2013tik 2015erako diru-laguntzak)	207	
Bestelako txikiago batzuk	37	
GUZTIRA	1.438	

Ondare-sarrerak eta inbertsioen besterentzea

Ondare-sarrerak eta inbertsio errealen besterentzeak modu honetan xehakutzen dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	DESBIDERATZEA	
Garajeengatik jasotako kanonak (Errenteria Garatuz, SA).....		251
Kirol instalazioen enpresa emakidadunaren kanona		135
Merkatuzaharko garajearen kanona eta beste txikiago batzuk		199
Ondare-sarrerak 5. kapitulua GUZTIRA		585
Usandizaga kalea 8-14ko lokalaren salmenta (12 etxebizitza egiteko)		530
Agustinarren Paseabidea, 4an erositako eraikinaren permuta (780.845 euro) eta Gaztaño Berrin entregatutako lursaila (1.218.573 euro)		438
Bestelako txikiago batzuk		21
Inbertsioen besterentzea 6. kapitulua GUZTIRA		989

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Gastu kapitulu honen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Gastua	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla
	2017		31.12.17
Korporaziokideak (alkatea eta 9 zinegotzi).....	423	-	10
Behin-behineko langileak.....	40	1	1
Funtzionarioak.....	11.410	303	297(a)
Lan-kontratu finkoko langileak	89	-	5
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	595	-	40(b)
Produktibitate osagarria.....	295	-	-
Ordainsariak guztizko partziala	12.852	304	353
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	3.163		
Erretiro aurreratuari sariak (10 funtzionario).....	282		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak-Elkarkidetza	272		
Aseguruak eta prestakuntza	117		
GUZTIRA	16.686		

(a) Lanpostua hutsik dagoelako 105 bitarteko langile jasotzen ditu eta lanpostuen jabe diren 162 funtzionario; 26 lanpostu gelditzen dira hutsik.

(b) 20 obra-kontratu, 15 obra-kontratu lanaldi partzialarekin (7 langilek % 57an obra-kontratua dute eta aldi berean bitarteko kontratua dute % 42,3an), 1 bitarteko lan-kontratuduna, 1 bitarteko lan-kontratuduna denbora partzialean eta 2 txandakako kontratu.

Langileen ordainsariak % 1 hazi ziren 2016an indarrean zeudenen aldean eta gainera, 2016ko urteari zegokion urte horretako ordainsarien % 2,5eko produktibitate-osagarria ordaindu zen. Gainera, 2017ari zegokion osagarri horren ordainketa onartu zen eta 350.000 euroren diru-izendapenak gorde ziren.

Aurreko taulako Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak ekitaldian zorpetutakoak dira. Udalak Gizarte Segurantzaren ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatzen ditu eta 2017an 343.468 euroren kostua eragin dute.

Udaleko langileen lan-baldintzen hobekuntzak 2018ko ekaineko Udaltzarak onartu zituen 2016ko apirilean hitzartu zireneko atzeraeraginekin eta bertan jasotzen da langileen aurre erretiroagatiko ordainsari osagarri bat, 8 edo 21 hilabetetako segun erretiroa 1 edo 5 urte aurreratzen den; 10 funtzionariook baliatu zuten hautu hau eta guztira 281.537 euro jaso zituzten.

Altak

2017ko ekitaldian Udalak ondoko langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kopurua
Karrerako funtzionarioak (udaltzaingoaren 2 plaza)	2
Bitarteko funtzionarioak (64 langile)	71
Titularren ordezkapenak	23
Lan pilaketa (gehienera 6 hilabete)	12
Aldi baterako programak (gehienera 3 urte)	9
Bitarteko kontratua behin betiko bete arte	27
Aldi baterako lan kontratupekoak (44 langile)	48
Obra-kontrata (Lanbide programa, langabetuen kontratazioa)	21
Behin-behinekoa, ekoizpeneko inguruabarrak (herriko jaiak).....	21
Ordezkapenatarako bitarteko kontratua	6
GUZTIRA	121



A.6 ONDASUN ARRUNTETAN ETA EROSKETA ETA ZERBITZUETAN GASTUAK

2. kapituluaren erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; ondotik xehakatu ditugu kontzeptu esanguratsuenak:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
Alokairuak	7	-
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	1.921	51
Añarbeko Uren Mankomunitatea Estoldetarako ekarpena	1.003	-
Bideak eta berdeguneak, azpiegiturak, arazketa, estolda	290	37
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	299	14
Makineria, instalazioak eta beste	329	-
Bulegoko materiala	88	2
Hornidurak	2.319	20
Eraikinetako energia elektrikoa eta argiteria publikoa	885	-
Añarbeko Uren Mankomunitatea Ekarpinak	955	-
Gasa eta erregaia	238	-
Jantziak, tresneria eta beste	241	20
Komunikazioak (informatika, telefonoa)	316	-
Garraioak	5	-
Aseguru-sariak	172	-
Hainbat gastu	1.152	4
Publizitatea eta propaganda	86	-
Gastu juridikoak	48	-
Gizarte eta kultura-jarduerak, Atlantikaldia, Madalenak, Inauteriak	654	-
Bestelako hainbat gastu	364	4
Kanpoko enpresek egindako lanak	10.643	217
Kale garbiketa	2.059	-
Gune berdeen mantentze-lanak	519	-
Udal aretoen garbiketa	1.341	-
Ludoteka eta gaztelekua	414	-
Gaztelutxo aterpetxea, baliabiderik gabeko helduak	484	-
Zaborrak biltzeko zerbitzua	1.109	-
TAO zerbitzua	385	110
Garabi zerbitzua	276	-
San Markoko Mankomunitatea: Kontsorzioaren HHS kudeatzeagatik	1.505	-
Etxerako laguntza zerbitzua	1.092	-
Bestelako txikiago batzuk	1.459	107
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	12	-
Dedikaziorik gabeko zinegotzien dietak, udal bileretara joateagatik	75	-
GUZTIRA	16.710	294

Hona hemen 2016ko inbertsioen xehapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
Lursailak: Lehendakari Agirre Plazako orubearen azken mugaeguna	200	-
Azpiegitura eta urbanizazioa (zoadura, urbanizazio-lanak, etab.)	833	578
Eraikinak (arreta gunea zaharberritzea, eskoletako lanak, Fanderia, etab.).....	851	311
Makineria, instalazioak eta tresneria (Alabergako igogailua eta beste).....	1.754	290
Ibilgailuak (bide-garbiketarako kamioia, altzariak, informatikako ekipoak	293	269
Azterlanak eta proiektuak (zabor organik. poltsak, obra zuzend., Plan Orok., etab.)	1.072	177
GUZTIRA	5.003	1.625

2013an Udalbatzak 425 m²-ko orubea erostea onartu zuen Lehendakari Agirre plazan eta udalerriko 481 m²-ko areto batekin trukatu zuen, balioan zuen aldea ordainduz, 800.000 euro 4 urtekotan, 2013 eta 2017 bitartean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK

Hona hemen gastuen 4. kapituluaren xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Gastuak	D-0
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	3.130	-
2 udal erakunde autonomo (ikus A.10)	2.640	-
S. Markoko mankomunitatea-zerbitzu eta zaborteia ixteko lanetarako ekarpena.....	490	-
DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK	1.769	153
Oarso Aldea, SA: 2017ko hitzarmena, zerb. Enplegu, Sustapen Ekon., Turismo, Kontsumo.....	551	29
Oarso Aldea, SA: enpresa-sustapena (1998ko hitzarmena).....	68	-
Oarso Aldea, SA: Lanbide eta Udalaren enplegu-plana (13 eta 4 kontratazio).....	44	10
Herribus garraioa (ikus A.11).....	449	39
Eresbil Fundazioa Musikaren Euskal Artxiboa.....	126	-
Ereintza Eskubaloia elkarte.....	79	7
Touring Kirol Elkarte (futbola).....	62	15
Errenteriako Pilota Lagunen Elkarte.....	57	-
3 kirol-elkarte: Emakumeen bira, Hibaika 2017 eta Mindara	34	3
Euskal Fondona elkarte, garapen bidean dauden herrialdeak.....	30	7
10 kultura-elkarte (Kukai, Ereintza, Andra Mari korala, etab.).....	160	27
Euskara sustatzeko 5 elkarte: Hitza, Lau Haizetara, Kontseilua, Hamaika Telebista, AEK	54	10
2 ikastetxe eta Aspace	17	4
Beste batzuk: Behemendi Landa Garapenerako elkarte, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritz, Gureak, Errenkoalde	38	2
LEIHA BIDEZ ESLEITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK	1.610	107
Gizarte larrialdiko laguntzak (502 onuradun).....	946	-
Gizarte larrialdiko laguntzak-udalaren osagarria (124 onuradun).....	89	-
Garapenerako (21 elkarte) eta kultura-aniztasunarekiko sentikortasunerako (5 elkarte) laguntzak	91	17
Eskola-kirola (6 ikastetxe).....	88	-
Kultura-jarduerak: urteko programak (42 erakunde).....	57	33
Kultura-jarduerak herriko jaietan eta inauterietan (31 eta 14 entitate).....	84	2
Jubilatuen elkarte Jarduerak (8 club).....	62	15
Euskara-ikasleentzat beka (224) eta enpresetan euskara sustatzeko planak (10)	70	3
Heziketa programak (6 guraso-elkarte, 4 ikastetxe eta 3 elkarte).....	22	15
Genero-berdintasuneko programak (11 elkarte).....	38	-
Kirol-jarduerak (17 elkarte).....	19	10
Gizarte ekintzako programak (25 elkarte).....	22	6
Beste batzuk: droga-menpekotasunaren prebentzioa, praktika-bekak eta gazte-elkarteak.....	22	6
BESTELAKOAK	377	13
Oarso Aldea SA: Udalak berreskuratutako garabi-zerbitzurako 5 langile kontratatutako laguntzak	32	-
4 udal talde politikoei diru-banaketa.....	117	-
Aurreko ekitaldietan emandako diru-laguntzak.....	228	13
GUZTIRA	6.886	273

D-O zutabearen saldoa, 272.623 eurorena, 2017an gauzatzeko jarduerentzat emandako diru-laguntzen azken ordainketari dagokio, batik bat, 2018ko gastu modura erregistratutako direnak onuradunek aurkeztutako likidazioek zehaztuko duten zenbatekoan, nahiz diruz lagundutako jarduera fiskalizazio-gai izan den erakundearen gauzatu den.



2017an San Markoko Mankomunitateari egin zaizkion ekarpenek honako xehakapena dute:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Zenbat.	
Garbiguneen eskualdeko zerbitzua	13	
Bilketa-zerbitzua industria-poligoetan	(70)	
Saltokietan, baserrialdeetan kartoia eta beiraren gaikako bilketa-zerbitzua	70	
Gastu orokorrak, San Markoko zabortegia kudeatzearen gastuak eta beste	443	
San Markoko zabortegia zigilatzeke etorkizuneko lanak	34	
GUTIRA	490	

Mankomunitateari ordaindu beharreko zenbatekoak, zabortegia zigilatzeke ekarpenetan izan ezik, Mankomunitatearen aurrekontua oinarri hartuta kalkulatu ziren, Udalarena bereiziaz (% 12,5) biztanleria-irizpideen arabera; ez zen, baina, gerora zuzendu aurrekontu horren egiazko egikaritzarekin. Mankomunitateko auditatu gabeko kontuek 2017an 3,3 milioi euroren aurrekontuko emaitza positiboa eta 2017ko abenduaren 31n 4,5 milioi euroren Diruzaintza erabilgarria erakusten dute, nahiz Ondare Garbia negatiboa den 15,8 milioi euroan. 2018an gauzatuko diren San Markoko zabortegia ixteko lanetarako ekarpena Mankomunitateak 2013ko otsailean erabaki zuen eta 566.380 euroan finkatu zituzten Udalak 2018 eta 2025 bitartean egin beharreko ordainketak.

Oarso Aldea, SA Udalak (% 25) eta beste 3 udalek partaidetutako sozietatea da, zeinei 7 zerbitzu ematen dizkien: enplegua, enpresa-sustapena, turismoa, euskararen sustapena, hiriaren berroneratzea eta kontsumoa); zerbitzu hauek guztiak finantzatzeko ekarpenak aurrekontuan jasotako defizitaren arabera kalkulatu dira eta Udalari aurreikusitako defizitetatik % 29 eta % 50 bitarteko kopurua dagokio. Enpresa-sustapenerako ekarpena 1998ko hitzarmen batetik dator, zeinetan Udalak konpromisoa hartzen zuen 50 urtetan sozietateari ordaintzeko sortze berriko poligoetan JEZ kontzeptuan sortutako sarreraren % 50. 2017an aurreko ekitaldian likidatutako sarrerei dagokien % 50 ordaindu zen.

Gizarte Larrialdietarako Laguntza 945.418 euro izan da 2017an eta EAEk araututakoekin bat datoz, zeinak urte horretan 518.872 euro eman zituen (ikus A.4 eranskina). Alokairu eta finantza-zamen kontzeptuko ordainketek laguntzen % 53 egin zuten 2017an. Gainera, udal programa baten bitartez 89.240 euroren laguntza osagarriak eman ziren, EAEren araudiko baldintzak betetzen ez zituzten haiei estaldura emateko, edota erkidegoko laguntzak aldi baterako eteten ziren kasuetarako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Ondoren, 2017ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunak zehaztu ditugu:

KAPITULUAK	Aurrekontu itxiak				Euroak milakotan	
	17/1/1	Baliog.	Kobr.	17/12/31	Aurrek.2017 17/12/31	GUZTIRA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga.....	800	30	462	308	154	462
Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga	412	42	77	293	113	406
Hiri izaerako lursailen balio igoseraren gaineko zerga	648	44	109	495	151	646
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	249	18	41	190	99	289
Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga	298	26	247	25	171	196
Zabor-bilketa	154	4	61	89	85	174
Estolderia.....	287	10	253	24	243	267
Ur hornidura.....	603	14	504	85	506	591
Udal garabiak ibilgailuak eramatea.....	125	6	6	113	13	126
Jabari publikoaren erab. pribatua: enpr. hornitzaileak	395	-	395	-	437	437
Isunak.....	534	80	89	365	137	502
Bestelako txikiago batzuk.....	272	11	169	92	128	220
1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala	4.777	285	2.413	2.079	2.237	4.316
4 eta 7 kap. Transf. eta diru-lag. arrunt eta kapit.	757	2	696	59	902	961
5 eta 8 kap. Ondare sarrerak eta finantza aktiboak	97	-	66	31	72	103
GUZTIRA	5.631	287	3.175	2.169	3.211	5.380
Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura						(2.095)
Kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi						(*) 3.285

(*) Balantzeko aktibo arruntean 3.273 eta 12 mila euroan xehakaturia, azken hauek epe laburreko finantza-inbertsioen atalean.

Udalak 2,1 milioi euroan balioetsi du 2017ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako hornidura, kobratzeko ehuneko historikoak aintzat hartuta.

A.9 BALANTZEKO BESTE SALDO BATZUK. ZORPETZEA

Aktibo arrunta

Honekin baterako taulan Balantzeko Kobratzeko beste Kontu batzuk idazpuruko saldoa xehakatu da:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Saldoa 17/12/31n	
BEZagatiko zordunak (ur-hornidura, alokairuak eta beste txikiago batzuk)		89
Beste zordun batzuk (Errenteria Musikali aurrerakina eta beste txikiago batzuk.....)		160
4. hiru hilekoko ur-hornidura eta estolderia-tasa, 2018an kitatua		885
KOBRAZKEKO BESTE KONTU BATZUK GUZTIRA		1.134

2017ko azken hiruhilekoko ur-hornidura eta estolderia tasa 2018an likidatu zen kontsumoen irakurketak egin ostean eta 2017ko diru-sarrera modura erregistratu zen



ondare-kontabilitatean eta aurrekontuaren kontabilitatean, berriz, kitatzen den urteko sarrera modura.

Balantzeko epe laburrerako finantza-inbertsioen saldoak 2 milioi euroren ezarpena barne hartzen du, 2018ko azaroan iraungiko dena.

Pasibo ez-arrunta

Hartzekodunen eta epe luzerako beste kontu batzuen saldoa era honetara xehakatzen da:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Saldoa 17/12/31n	
Gaztaño Berri urbanizatzeko kuoten kobrantza, destinora aplikatzeko zain.....		601
Herentziaren kobrantza eta aktiboak, destinora aplikatzeko zain		656
Epe luzeko bermeak		361
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK GUZTIRA		1.618

Epe luze eta laburrera aldizkakotzeagatiko doiketen saldoak, 5,2 milioi euro eta 82.626 euro hurrenez hurren, udal garajeak erabiltzeagatiko kanonaren sarrera aurreratuei dagozkie. Garaje horiek amortizatzeko kostu garbia aktibo ez arruntaren ibilgetuko inbertsioen idazpuruan barne hartzen da, 2017ko abenduaren 31n 5,2 milioi euroren saldoa duela.

Pasibo arrunta

Balantzeko Hartzekodun eta beste zor batzuen idazpurua era honetara xehakatzen da:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Saldoa 17.12.31n	
Aurrekontuko hartzekodunak		2.653
Administrazio publikoak: Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzza.....		687
Destinora aplikatzeko dauden sarrerak		332
Bermeak eta gordailuak epe laburrera		265
BEZ hartzekodunak eta bestelako txikiago batzuk		133
HARTZEKODUNAK ETA BESTE ZOR BATZUK GUZTIRA		4.070

Udalak 2017an erabaki zuen bi enpresak ematen zituzten garabi eta TAO zerbitzuak zuzenean ematea; zerbitzu horietara atxikiak zeuden langileek eskatu zuten haien kontratuak Udalak subroga zitzala, zeinari uko egin zitzaion eta errekurritua izan zen. EAEANk 2018an baietsi zuen kontratueta subrogatzeko udalak zuen obligazioa eta orduan Udalak langile horiek kaleratu eta indemnizatu egin zituen. 900.000 euro zuzkitu ziren kalte-ordainak eta epaiketa-kostuak ordaintzeko egin beharreko ordainketak aurreikusiz; 2018ko urrian egindako txostenaren arabera, ordura arte zorpetutako zenbatekoa 942.126 euro izan da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zorpetzea

Ondotik, 2017an indarrean izan diren maileguen osaera eta mugimenduak xehatuko ditugu:

BANKUA	Euroak milakotan						
	Hasierako zenbat.	Urte kop.	Epemuga Azkena	Zorra 16/12/31	Berria	Amortiz.	Zorra 17/12/31
Kutxabank (4 mailegu).....	7.724	15	2021	1.421	-	645	776
Kutxabank	1.719	15	2021	681	-	136	545
Kutxabank	1.419	15	2022	694	-	121	573
Kutxabank	1.095	15	2023	608	-	90	518
Kutxabank	1.524	15	2026	1.196	-	108	1.088
Kutxabank	1.905	12	2024	1.476	-	190	1.286
Kutxabank	2.000	15	2031	-	1.196	-	1.196
Caja Rural Navarra	1.589	15	2030	1.589	-	-	1.589
Caja Rural Navarra	2.119	15	2030	1.815	304	-	2.119
Caja Rural Navarra	2.100	15	2032	-	600	-	600 (*)
La Caixa (3 mailegu).....	2.819	-	2022	748	-	232	516
La Caixa.....	1.090	15	2023	566	-	84	482
Sabadell-Guipuzcoano	2.301	10	2024	1.315	-	166	1.149
BBVA (4 mailegu).....	4.253	15	2022	850	-	304	546
Dibertsifikazio-institutua	421	9	2025	421	-	-	421
Eusko Jauriaritza	-	-	-	66	-	66	-
GUZTIRA				13.446	2.100	2.142 (*)	13.404
							Pasibo korrontea-kreditu etxeekiko zorrak (iraungipena 2018) 1.987
							Pasibo ez korrontea-epe luzeko zorrak (iraungipena 2019-2032) 11.417

(*) 2017an 2,1 milioi euroren zenbatekoan kontraturiko mailegua. Guztira 2,3 milioi euroan baliatu gabeko maileguak, mailegu hau eta beste bat.

A.10 ERAKUNDE AUTONOMOAK

Sarrerak

3 eta 4 kapituluetak sarrera era honetara xehakatzen dira:

	Euroak milakotan	
	Egoitza	Musika
Egoitza erabiltzeagatiko eta musika irakasteagatiko tasak	1.757	273
Bestelako txikiago batzuk.....	5	-
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	1.762	273
Udala-ekarpen orokorra	1.097(*)	1.543
EAE- musika irakaskuntza (2017ko urtea).....	-	282
GFA- egoitzako 140 plaza hitzartzea.....	2.860	-
Beste batzuk	1	-
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.958	1.825

(*) GFAk2017ko defiziterako egindako ekarpen-kontzeptuan kobratutako 256.698 euroren aurrekontuz kanpoko saldoa, Udalaren diru-sarrera modua aitortu zena.



Langileria

Ondoren, 2017ko abenduaren 31n langile gastuak eta plantilla zehaztu dugu:

	Euroak milakotan	
	Egoitza	Musika
Funtzionarioak	464	985
Langile lan kontratudun finkoak.....	10	245
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	31	187
Funtzionario eta lan kontratupekoen produktibitate osagarria.....	13	33
Ordainsariak guztira	518	1.450
Gizarte Segurantzza	134	359
Elkarkidetza	13	35
Erretiro aurreratuagatik saria langile bati	-	37
Aseguruak eta beste gastu sozial batzuk.....	7	12
LANGILE GASTUAK GUZTIRA	672	1.893

	Kopurua	
	Egoitza	Musika
Funtzionarioak	12(a)	27(c)
Lan kontratuko langile finkoak	1(b)	10
Aldi-baterako lan kontr. langil.	1(b)	8(d)
17.12.31N PLANTILLA GUZTIRA	14	45
LZ-KO LANPOSTUAK GUZTIRA, 2017	13	40(e)

(a) Bitarteko 3 langile barne hartzen ditu.

(b) Lan kontratu finkoduna partzialki erretiraturia % 25ean eta txandakako aldi baterako lan kontratuduna % 100ean.

(c) Bitarteko 9 langile barne hartzen ditu (5 lanpostu hutsa betetzeko, 3 bajak ordezkatzeko eta 1 programakoa).

(d) Bitarteko 5 kontratu, 1 txandakakoa eta 2 kontratu langile baten lanaldi murrizketagatik hartzen ditu.

(e) Lanaldi partziala duten 17 lanpostu (% 15-75). Ez dira barne hartu zuzendari, ikasketa-buru eta idazkari lanpostuak, titularrik ez dutenak eta modu iragankorrean irakasleek betetzen dituztenak.

2017ko ekitaldian erakunde autonomoek ondoko langile-kontratazio hauek gauzatu dituzte:

	Kontratu kopurua	
	Egoitza	Musika
Bitarteko ordezkia.....	1	10
Kontratuak GUZTIRA	1	10
Langile kop.	1	9



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erosketak eta diru-laguntzak

	Euroak milakotan	
	Egoitza	Musika
Alokairua	-	1
Konponketak eta zaintza	127	12
Bulegoko materiala	16	5
Argindarra hornitzea	79	13
Gas natural eta gasolio-hornidura	39	-
Janari-hornidura	280	-
Beste hornigai batzuk (ura, aldagela, e.a.)	130	5
Jakinarezpenak, aseguru eta tributuak	7	3
Hainbat gastu: publizitatea eta kultura jarduerak	5	18
Enpresek egindako lanak	4.189	58
Egoiliarrei arreta ematea (74 zaintzaile eta arduradun subrogatu)	2.679	-
Garbiketa, harrera eta mantentze-lanak (26 garbitzaile eta beste subrogatu batzuk)	1.056	-
Erakundeko osasun-zerbitzuari laguntza	376	-
Erakundeko sukalde-zerbitzuari laguntza	66	-
Bestelako txikiago batzuk	12	-
Dietak eta garraio-sariak	1	4
2. KAPITULUA GUZTIRA	4.873	119
Errenteriako Musika Kultur Elkartea-Musika-banda	-	70
4. KAPITULUA GUZTIRA	-	70



A.11 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

KONTRATUA	Euroak milakotan							
	ESLEIPENA			Subro- -gazioa	Gastua 2017	AKATSAK		
	Data	Prozed.	Zenbatekoa (a)			A	B	C
UDALA								
1. Fanderia eta Galtzarabordako kirol. kudea. (10 urte).....	abe-08	Irekia	(1.260)(b)	72	1.675(b)	A1,2	B1	C
2. Hiri autobusen kudeaketa- 7 linea (10 urte).	urt-14	Irekia	4.480(b)	12	898(b)	A1,2		
3. Kale garbiketa eta zabor bilketa (6 urte).....	urt-16	Irekia	19.008	54	3.168	A1,2		C
4. Udal eraikinen garbiketa (2 urte).....	ira-16	Irekia	2.620	35	1.305	A2		
5. Etxez etxeko laguntza (2 urte).....	abu-17	Irekia	2.368(c)	48	247			C
6. Alabergan igogailuak jarri eta urbanizatzeko lana	eka-16	Irekia	1.354	-	1.006	A1		
Obra osagarriak	api-17	-	200					
Aldaketa	urr-17	-	114					
UDAL EGOITZA								
7. Sorospen-zerbitzua, garbiketa eta beste (2 urte)	mai-16.	Irekia	7.325	100	3.783	A1,2	B1	
Aldaketak eta prezio berrikuspina	2016 eta 17		69					
GUZTIRA			36.278		12.082			

(a) BEZa kenduta esleitutako zenbatekoak.

(b) Zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuak, kontratistari ordaintzeko zerbitzuko sarrera konpentsatudunak Esleipenean (kobratu)/ordaindu beharreko kanona adierazten da eta 2017ko gastuetan Udalarentzako kostua, konpentsatutako sarrerak barne hartuta.

(c) Aleko prezioak balioetsitako esleipen-zenbatekoa, 2017ko egiazko egikaritze datuekin.

AKATSAK	Espediente kop.	Esleip. zenb.
A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA		
1. Esleipen-irizpide orokorrak eta zehaztu gabeko balorazio-irizpideak	5	30.907
2. Urteko bati dagokion berme-zenbatekoa	5	32.173
B ESLEIPENA ETA EGIKARITZA		
1. Esleipenaren/formalizazioaren publikotasuna	2	6.065
C ESPEDIENTEAREN BERARIAZKO ALDERDIAK		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Beste erosketa batzuk

Gainera, prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen beste erosketa batzuk aztertu ditugu:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan Gastua
UDALA	
Karpa, eszenario eta aulkien alokairua	38
Erregai-hornidura	30
Gas-hornidura Galtzarabordako kiroldegian	28
Garabiko 5 langile birkolokatzeko planaren hitzarmena: prestakuntza eta orientazioa	26
Izurriteak kontrolatzeko zerbitzuak	24
UDAL EGOITZA	
Material geriatrikoaren hornidura	26
Norberaren garbitasunerako produktuen hornidura	30



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK ERREENTERIAKO UDALAREN 2017KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOARI BURUZ EMANDAKO EMAITZAREN KONTRA

Erreenteriako Udalaren eta haren tokiko erakunde autonomoen 2017ko ekitaldiko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, eta otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan xedatutakoa betez, Erreenteriako Udaleko alkate Julen Mendoza Pérez jaunak, udal-zerbitzu juridikoek alegazioetarako emandako erantzun-proposamena aztertu ondoren, dagozkion alegazio eta justifikazioak aurkezten ditu.

Nabarmentzekoa da gure eskura jarritako txostena ez zegoela osorik euskarazko bertsioan, jatorrizkoan –gaztelaniazkoan– bildutako gai guztiak ez baitzeuden behar bezala itzulita euskarara.

II. IRITZIA

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

“Udalak eta bi erakunde autonomoek ez dute ibilgetuan eragina duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten (...).

ADIERAZTEN DUGU 2016ko apirilaren 13an Erreenteriako Udalak udal-inbentarioa kudeatzeko aplikazioa eguneratzeko lanak esleitu zituela. Harrez geroztik hona, inbentarioan azkeneko kargatik egon diren mugimendu guztiak eguneratu egin dira, eta prozesu hori oraindik ez zegoen amaituta 2017ko abenduaren 31n.

2018ko ekitaldia ixtean, kontabilitateko saldo guztiak zuzenduta zeuden jada, eta zegozkion ibilgetuaren amortizazio-zuzkidurak ere jada eginda zeuden 2017/12/31n; halaber, horien azken zuzenketak –2018ko mugimenduei zegozkienak– 2019an zehar egitekoak dira ondare-kontabilitatean. Eranskin gisa txertatzen da 2017/12/31eko inbentarioko kontuak eta 2018/12/31ko kontabilitate patrimonialeko kontuen kopiak.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

“Kredituak 2017ko aurrekontura txertatzeko espedientean 2015 eta 2014ko kredituak barne hartu ziren, 325.128 euroren zenbatekoan; ordea, horiek ezin ziren hor jaso araudiak mugatu egiten dituelako txertaketa jarraituak. Aurreko urteko gastu arruntetarako kredituak ere barne hartu ziren, konprometitu ez zirenak, 99.541 euroren zenbatekoan.”

ADIERAZTEN DUGU 0801.643.01.332.20 TARTEKO ARTXIBOAREN DESKRIBAPENA (6.957,50 euros) 2014ko partida diru-sarrera finalistekin finantzatzen zela: zehazki, Eusko



Jaurlearitzaren Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako dirulaguntza baten bidez.

Gainerako kasuetako hiru (16.382,23 euros) Udalak emandako dirulaguntzak ziren, eta horien justifikazioa izapidetzen ari zen ekitaldia ixtean.

Gainerako kasuak –nahasita txertatu zen bat izan ezik–, salbuespenekoak izan ziren: Bilkuretako erabakiak (166.279,68 euros) edo inbertsioak (129.174,50 euros), horien egikaritzea atzeratu egin zela eta ez zela amaitu 2016ko abendua baino lehen, salbuespenezko eta aurreikusi gabeko arrazoiengatik.

“2. kapituluaren sailkatzen dira San Markoko Mankomunitateari egindako 1,5 milioi euroren ekarpenak, tratatzeko emandako tona hondakinen arabera kalkulatuak, nahiz mankomunitateko estatutuek banaketarako irizpide bakar modura biztanle kopurua bereizten duten.”

ADIERAZTEN DUGU Mankomunitateari ekarpenak eta kontraprestazioak ordaintzeko irizpideak auzitegietara eraman dituztela Mankomunitatea osatzen duten udalerrri batzuek; halaber, jada epai irmoa duten ekitaldietako ekarpenak berriz kalkulatzeko ari da Mankomunitatea.

“Gastuen 4. kapituluko aitortu gabeko konpromisoen saldoa (D-O), 272.623 eurorena, likidatzeko dauden emandako diru-laguntzei dagokie. Urteko itxiera prozesuetan diru-laguntza hauek kitatzeko epeak mugatzea komeniko litzateke, saldoaren zenbatekoa minimizatzen.”

ONARTZEN DUGU Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren gomendioa, baina kasu askotan, onuradunek urte natural osoan egikaritzen dituzten proiektuengatik esleituriko dirulaguntzak dira eta, honenbestez, azken justifikazioaren izapidetzea hurrengo ekitaldiaren hasierara eramaten da.

“Kontu Orokorrean barne hartutako Memoriak honako alderdi hauen berri eman beharko luke:

- a) Aldez aurretik jubilatzen den langileriarri gizarte-prestazioengatik kontingentzia.*
- b) Kirol-instalazioak erabiltzeagatik tasaren eta udal autobusen tasaren diru-bilketa.”*

ONARTZEN DUGU Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren gomendioa eta 2018ko Kontu Orokorren Memorian jada zuzendu dugu mutur hori.



“Udalak ez ditu premiamenduko zorren berandutza-interesak likidatzen, 2017ko abenduaren 31n 3,5 milioi euro egin zutenak.”

ADIERAZTEN DUGU, lehenik eta behin, 2017an betearazpen-bidez kobratutako zenbatekoa 377.027,83 eurokoa baino ez zela izan, eta ez 3,5 milioi eurokoa. Bigarrenik, adierazten dugu berandutze-interesaren likidazioa egiten duela Udalak, zatikapen-espedienteen kasuan.

Premiamendu-prozeduren kasuan, Udalaren borondatea argia bada ere, udalaren diru-bilketa kudeatzeko baliatzen den aplikazio informatikoak (IZFE Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA) likidazio horien kudeaketa eta kitapena nabarmen oztopatzen duten muga ugari ditu:

- Ordainketa ez bada egiten ordainketa-gutuna sortzen den egun berean, berandutze-interesaren zenbatekoa ez dator bat sistema informatikoak sortutakoarekin.
- Horrela kobraturiko ordainagirien data eskuz sartu behar da, gaur egun ezinezkoa baita horiek automatikoki kontabilizatzea.
- Sistemak ez du uzten likidazio bat interesaren kalkularekin eskusiboki ematen; dagokion zergaren ordainketa-gutunaren mendeko dokumentu batean baino ezin da eman.

Edonola ere, Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA zerga-bilketarako programa berri bat ari da garatzen, baina ez da espero 2020a edo 2021a baino lehen martxan jartzea.

Erakunde autonomoak eta sozietate publikoa

“Bi erakunde autonomoen estatutuek erakundeetako langileei esleitzen dizkiete idazkari, kontu hartzaile eta udal diruzainentzat gordetako egitekoak.”

ADIERAZTEN DUGU, estatutuen artikulua batzuetatik arestian aipatutakoa ondoriozta badaiteke ere, Errenteria Musikal erakunde autonomoaren estatutuek gaitu egiten dute gordetako egiteko horiek gauzatzera, eta hala egin izan da beharrezkotzat jo izan den bakoitzean. Hala, estatutuetan hauek jasotzen dira: 9. artikuluan, «Udalbatzako Idazkariak aholkua emango dio Batzordeari horrela eskatzen dioten guztietan, bileretara joatea daukalarik»; 10. artikuluan, «Udal Kontu-hartzaileak fiskalizazio eta tutoretzako zereginak erabiliko ditu, Batzordearen bileretara joatea daukalarik» ; 31. artikuluan, «Aurrekontu proiektua Zuzendaritza Batzordeak burutuko du, Udal Fondon Kontu-hartzaileak eta Zuzendari Administrazioak lagundurik (...)»; eta 33. artikuluan, «Patronatuaren sarrerak eta gastuak Zuzendari-Administrazioak kontu hartu eta kontabilizatuko ditu eta jessio ekonomikoaren bidezko fiskalizazioa eramango, guztiori Udalbatzako Fondon Kontu-hartzailearen ikuskaritzapean».

Hori guztia, 37. artikuluan eta hurrengoetan modu esplizituan bildutako «kontu-hartzailetzaren ahalmenak eta udalaren babesak» alde batera utzi gabe, eta kontuan izanik



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

babes horretan udalaren idazkariak, kontu-hartzaileak eta diruzainak esku hartu behar dutela, derrigor, babeserako eskumen horretan eta, honenbestez, gordetako egitekoen gauzatzea dagoela kasu horretan.

Aurreko guztia alde batera utzi gabe, Errenteria Musikal erakundeko langileen artean gordetako egitekoak esanbidez eskuordetu izan dira, Gaikuntza Nazionala duten Toki-administrazioko Funtzionarioen Araubide Juridikoari buruzko irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren –gaur egunean indargabetuta dagoenaren– 13.2 artikuluari jarraikiz.

Zaharren Egoitzaren estatutuek, bestalde, antzeko artikulua dituzte, eta gordetako egitekoen gauzatzea Errenteria Musikal erakundearen antzera egin izan da, baina 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundira transferitu da Zaharren Egoitza, Kabia erakunde autonomoaren bitartez. Horrenbestez, Errenteriako Udalak erakunde autonomo bakar bat du gaur egunean.

Nolanahi ere, Epaitegiak egiten digun iruzkina kontuan hartuko dugu eta Errenteria Musikal erakundearen estatutuak sakonki aztertuko ditugu, indarreko legeriara egokitze aldera, bereziki, gordetako egitekoak gauzatzeari dagokionez, 128/2018 EDn xedatutakoa kontuan izanik.

“Errenteria Musikalek ez zu langileen eranskina eta ekonomia- eta finantza-txostena barne hartzen. Kontu Orokorrean ez zen ez Memoria ez banku-saldoen ziurtagiririk jaso.”

ONARTZEN DUGU Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren gomendioa, hanka-sartzeak izanik, eta jada zuzendu dira etorkizuneko ekitaldietarako.

“Errenteria Garatuz Udal Sozietatearen egoerari dagokionez:”

ADIERAZTEN DUGU 2017ko urteko kontuen Memoria Laburtuaren Berezko Funtzak 8. oharraren c letran, zera adierazten da, sozietateak ondasun, eskubide eta betebeharrak Udalari eskualdatu izanaren ondorioz (batez ere), balantze laburtuan bilduriko «Ondare Garbia» kapituluaren saldoa zero eurokoa dela; horrek esan nahi du desegite-kausan erortzen dela, ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa delako.

Nolanahi ere, eta urteko kontu horiei buruz emandako auditoretza-txostenean azaltzen den bezala, eta zehazki, Funtzionatzen ari den enpresarekin lotutako ziurgabetasun materiala, «*administrariak horiek prestatu dituzte, sozietatea gaur egun geldituta badago ere, haren jarduerak etorkizunean jarraitu ahalko duela onartuz, eta ohar horretan azaltzen den bezalaxe, Errenteriako Udalaren erabateko babesa dutela*».



Horregatik, jarduketa horiek ondo ezagututa, eta sozietatearen etorkizunari buruzko kontsiderazioak onartu ondoren, Udaleko zinegotzietz osatutako akziodunen batzarrean – 2018ko uztailaren 17an– sozietatearen kontuak –2017koak– aurkeztu ziren.

Edonola ere, ez dugu ahaztu behar bere garaian egonkortu zela sozietatearen egoera, 2017ko ekainaren 27an –sozietatea jada jardunean ez zegoenean– adostutako kapital-murrizketa barnean hartuta, 2017ko kontuetatik abiatuta emaitza 0 eurokoa izanik (galerak eta irabaziak), eta 2019an korporazio-aldaketa gertatuko zela ikusirik, gomendagarria zen urte honetara arte itxarotea sozietatearen etorkizunari buruz erabakitzeke, eta ziurtasun horrekin, Merkataritza Erregistroan erregistratu dira, inolako gorabeherarik gabe.

III.2 LANGILERIA

“Aurrekontuan 2017rako aurreikusitako ordainsari-igoera.”

ONARTZEN DUGU Epaitegiak emandako gomendioa, orain arte honela interpretatu izan baita: Aurrekontu Orokorrean ordainsari-igoeraren aurreikuspena espresuki sartzeak, betiere Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean dagokion gaikuntza egiten bazen, geroago aplikatzeko gaitzen zuela, hain zuzen, eta ez dagoela zertan beste udalbatza batean erabakia hartzea gaikuntza horretarako. 2019ko ordainsari-igoera espresuki onartu zuen Udalbatzak 2019ko urtarrilaren 29an; izan ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2019ko otsailaren 12an (29. zenbakia).

Eta gauza bera gertatu zen Errenteriako Udaleko langileen lan-baldintzak arautzeko hitzarmenean (Udalhitz) bilduriko hobekuntzak publikoki jakitera emateari dagokionez; hala, 2018an Errenteriako Udalak onetsitako azken hobekuntzak publikoki jakitera eman zituen, 2018ko abuztuaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (160. zenbakia).

“Udalak 2017an ordaindu zuen 2016an onartutako produktibitate-osagarri bat.”

ADIERAZTEN DUGU 2015az geroztik produktibitate-osagarri bat lantzen ari garela, baita hura udal-langileei ordaintzeko modua ere. Horrela, 2016ari zegokion osagarriaren ordainketak helburu argi bat zuen: antolamendu-eredu berri bat txertatzeko prozesuan parte hartzeagatik eta prozesu hartan errendimendu berezia izateagatik ordaintzea udal-langileei; horren bidez, talde-lana bereziki baloratu nahi izan zen. 2017an Udalbatzaren Erabaki bidez esleituriko zenbateko orokorrari dagokionez (350.000 euro), enplegatu bakoitzari osagarri hori indibidualizatzeko irizpide jakin batzuk onetsi ziren. Izan ere, Udalbatzak onetsi eta 2019ko urtarrilaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (13. zenbakia) argitaratu ziren irizpide horiek.



“2017ko lanpostu-zerrendaren aldaketak espres onartzea eta argitara ematea.”

ADIERAZTEN DUGU zegozkion aldaketak LZren dokumentuan –Udalbatzak onartu eta geroago Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emandakoan– jada txertatuta zeudela. Aurrekoa alde batera utzi gabe, 2019ko LZren onespenean espresuki onetsi dira aldaketa guztiak eta horien argitalpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horren ildotik, kontuan hartu behar da 2019ko urtarrilaren 28an argitaratu zirela GAOn (18. zenbakian).

Lanpostu sortu berriei esleituriko maila eta osagarriei gagozkiela, kontuan izan behar da lanpostuen baloraziorako eskuliburu bat sortzeke dagoela; bitartean, lanpostu berri bati esleitzen zaion maila antzeko egiteko, erantzukizun edo nekagarritasuna duen lanbide-kategoria izan ohi da, eta alderaketa-metodo bat erabiltzen da horretarako.

“1985 eta 2010 bitartean formalizatutako aldi baterako 15 kontratu.”

ADIERAZTEN DUGU etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagozkiola kontratu horiek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako lan edo zerbitzu jakin bat izan zela horien helburua. Lanpostu horiek LZn ez txertatu izanaren arrazoia lan-harremanaren izaera bera zera zen eta, halaber, kontuan izan behar da iraungi egiten zirela lan-kontratu horien titularrak erretiratzen ziren edo desgaitasun-egoerara aldatzen ziren edota lan-harremanari uko egiten zioten heinean.

“Udalaren aurrekontuko plantillak ez ditu xehakatzen lanpostuen ordainsari osagarriak.”

ADIERAZTEN DUGU aurrekontuko plantillak xehakatzen dituela ordainsarien banakapenak, gastuen sailkapen ekonomikoaren arabera, eta indarreko kontabilitate-araudiak bereizten dituela, hain zuzen, ordainsari oinarritzkoak eta osagarriak, bestelako banakapenik egin gabe. LZk lanpostu bakoitzari dagokion maila eta osagarri espezifikoari dagokion zenbatekoa jasotzen ditu; hala, lanpostu bakoitzari dagokion ordainsariak lege-eskakizunak betetzen ditu: oinarritzko ordainsariak sailkapen-taldearen arabera, lanpostu-osagarria mailaren arabera, eta lanpostu bakoitzari dagokion berariazko osagarria.

“Aparteko ordainsarien banakako izendapena alkateak edo eskuordeko zinegotziak onartu beharra.”

ONARTZEN DUGU Epaitegiaren gomendioa, baina nabarmendu beharrekoa da aparteko ordainsariak jaso egiten direla Giza Baliabideen azpiatalak ematen duen hileko aldaketen txostenaren eranskin gisa, eta egin diren azpiataleko arduradun tekniko eta politikoen oniritzia izaten dutela, Giza Baliabideen arduradunaren oniritziaz gain.



“Udalak ez ditu aitortzen, zerga-ondorioetarako, espeziezko ordainsariak etab.”

ONARTZEN DUGU Epaitegiaren gomendioa, baina bizi-aseguruen kasuan, aseguru-arterkaritzak ez du indibidualizatzen enplegatu bakoitzari dagokion kostua, eta horrek espeziezko ordainsariak kalkulatzeko oztopatzen du. Indibidualizazio hori egin bezain laster konponduko da arazo hori.

“Lan-poltsa zaharkituak eta aldi baterako kontratazioak.”

ADIERAZTEN DUGU Giza Baliabideen azpiatalak lan-bolumen handia duela eta, horregatik, ezin izan dela deialdi berririk egin. Baliabideek ahalbidetzen diguten heinean, hautaketa-prozesuen deialdia egingo da eta lan-poltsak berrituko dira. Horretarako, Giza Baliabideen azpiatala indartu egin da. Edonola ere, Udalak ekitaldian egindako aldi baterako kontratazioek premia horren justifikazio teknikoa izan zuten.

Erakunde autonomoak

“Erretereria Musikal: 2008an Udalhitzera atxikitzean bildutako hobekuntzak, 38 irakasleri dagozkienak.”

ADIERAZTEN DUGU egoera hori erregularizatu beharrekoa dela eta, izan ere, 2016an hori egiten saiatu ginela baina langileek arazoa judizializatu zutela. Patronatuaren kontrako epaia eman ondoren, arazo horri berriro heldu behar zaio, dagokion lege-bidetik.

“Erretereria Musikaleko eta Zaharren Egoitzaren LZen aldaketak, espedientean justifikatu ez zirenak.”

ADIERAZTEN DUGU Erretereria Musikalen kasuan, aipatutako lanpostu horiek hauek direla: zuzendari-administraria, ikasketaburua eta idazkaria. LZn jasotzen den bezala, lanpostuak dira, eta ez beste lanpostu batzuen titularrei esleituriko koordinazio-egitekoak. Zuzendari-administrariaren kasuan, lanpostua bitarteko funtzionario batek betetzen du. Ikasketaburuaren eta idazkariaren kasuetan, entitateko karrerako bi funtzionariok betetzen dituzte lanpostu horiek.

III.3 KONTRATAZIOA

Hasteko, adierazi behar da Epaitegiak aztertutako kontratuen batura dela, aldaketak barne hartuta, 38,798 milioi euro (Epaitegiak adierazitakoa baino 2,6 milioi gehiago). Alabaina, ez da diferentzia hori aipatuko alegazioak bideratzerakoan, ez baita garrantzitsua.



“Guztira 30,9 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan (1, 2, 3, 6 eta 7 espedienteak) esleipen-irizpide orokorrak baliatu ziren, balioztatuko liratekeen alderdiak eta/edo baloraziorako aplikatu beharreko sistema zehaztu gabe (A1 akatsa).”

ADIERAZTEN DUGU kasu guztietan ezarritako irizpideak ez zituela aurkaratu ezein lizitatzailerik eta aurkeztutako eskaintzen balorazio tekniko eta ekonomikoetarako oinarri egokia izan zirela eta inork ez zuela erreklamaziorik edo errekursorik aurkeztu Administrazioaren arbitrariotasunagatik.

Edonola ere, egia den arren 2, 3 eta 6 espedienteetan (25,1 milioi euroko balioaz), baldintza- administratiboen agirietan ez direla zehazten esleitzeko irizpideak, baloratuko diren alderdiak eta balorazio-sistema, xehetasunez jasotzen dira baldintza teknikoaren agirietan (baldintza teknikoaren agiriaren 23, 15 eta X atalak, hurrenez hurren).

“Guztira 32,2 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan (1etik 4rako eta 7 espedienteak) behin betiko bermea urteko baten zenbatekoa abiaburu hartuta kalkulatu zen, guztira esleitutako zenbatekoa aintzat hartu beharrean (A2 akatsa).”

ADIERAZTEN DUGU zerbitzuen kasuan urteko aurrekontua hartu dugula erreferentzia gisa behin betiko fidantza kalkulatzeko, bestela kontratuaren prezioaren zenbatekoaren arabera zenbateko itzelak izan daitezkeelako eta garestiegiak suerta daitezkeelako hainbatetan eta jarraian ematen diren zerbitzuen kontratistentzako eta, ondorioz, betetze akastuna zuzen daitezkeelako kontratua burutzen den bitartean. Horrez gain, kontratu horiek ez betetzeak, hasiera batean, ez dio Udalari kalte ekonomiko zuzenik eragiten.

“Bi kontraturen esleipena/formalizazioa (1 eta 7 espedienteak), 6,1 milioi euroren zenbatekoan, ez zen aldizkari ofizialean argitara eman. 7. espedienteetan ez zegoen jasoa lehiatzaileei jakinarazpena bidali zitzaizaienik (B1 akatsa).”

ONARTZEN DUGU Epaitegiaren gomendioa, nahiz eta esan behar den udal-kiroldegiaren eta adinduen egoitzako laguntza zerbitzuaren eta bestelakoen kudeaketa-espedienteetan deskuidu baten ondoriozkoa izan dela akatsa, inolako garrantzirik gabekoa, esleipena behar bezala egin baitu kontratazio-organoak, eta lizitatzailerik jakinarazi baitzitzaien, nahiz eta ez jasota egon esleipendun suertatu ez ziren interesdunek jakinarazpena hartu zutenik adinduen egoitzaren kontratuaren kasuan; ez dago erreklamaziorik honen inguruan.

“Zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu modura kalifikatu zen kale-garbiketa eta zabor-bilketa zerbitzua; ordea, arriskuko osagarririk ez izateak zerbitzu-kontratutzat hartzea derrigortzen du eta iraupenaldia gehienez 6 urtetara mugatzen. Honetaz gain, esleipena proposamenen irekiera egin eta 4 hilabetetara



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

gauzatu zen, araudiak gehienera 2 hilabeteko epea aurreikusten duenean (C akatsa).”

ADIERAZTEN DUGU 2016an esleitu zenez, oraindik ere 3 urte geratzen direla aipatutako 6 urteetara iristeko. Eta lizitatzailerik batek Auzitegi Gorenak kasazio-errekurtso bat ez onartzeko hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako babes-errekurtsoa ebazteko dagoenez, Udaltzatzen ezin du horren inguruan ebazpenik hartu.

“Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren lehiatzaileek aurkeztutako proiektuak baloratu zituen txosten teknikoak hiru irizpide nagusien puntuak adierazi zituen, baina ez zuen 9 azpi-irizpideen balorazioa zehaztu, ezta emandako puntuazioak arrazoitu ere (C akatsa).”

ADIERAZTEN DUGU balio-judizioaren araberrako esleipen-irizpideetan hainbat irizpide zaudela, eta horien baitan hainbat azpi-irizpide biltzen zirela.

Irizpide eta azpi-irizpide horien inguruko txostena egiterakoan erabaki zen irizpideak nahiz azpi-irizpideak baloratzea, atalez atal, nahiz eta puntuazio zehatzarekin koadroa egiterakoan ez ziren bereizi azpi-irizpide bakoitzaren puntuazioak.

Azken batean, kontuan izan ziren bere garaian enpresa lizitatzailerik bakoitzari puntuazioa emateko onartutako azpi-irizpideak.

Alderdi orokorrak eta erosketa txikiak

“Kontratu batean prezioa balioztatzeko baliatutako formulak mugatu egiten zituen eskaintetako merkatzeak eta beste 2 kasutan proportzionaltasun soileko formula baliatu zen, faktore honen egiazko balioa murrizten duena, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanaz (2, 5 eta 6 espedienteak).”

ADIERAZTEN DUGU akats hori egoki zuzendu dela 2016tik aurrera abiatutako espedienteetan.

“Udalak 2016an kontratazio-eremuko fiskalizazioa baldintza hauek egiaztatzen mugatu zuen: krediturik bazela; kontratazio-atalaren gaitasuna eta plegua, irizpideak eta prozedura araudira egokitzea; egiaztatze hauen ondorioa espediente baimendu aurreko aginduzko txostenean jaso behar litzateke. Halaber, fiskalizazio mugatuari buruzko udalaren erregulazioa osatu egin beharko litzateke honako hauen egiaztatzeak eginez: kontratuen esleipena; lehia erregimenean eman beharreko diru-laguntzak; eta langileen altak.”



ADIERAZTEN DUGU 2017an bete zela Udaltzako onartutako Aurrekontua Exekutatzeko Arauan arlo honen inguruan ezarritakoa; eranskin gisa jasotzen zuen barne-kontrolari buruzko instrukzio bat.

“Beste erosketak batzuk aztertzean ikusi da kontratuak zuzenean esleitu direla, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu beharrean (ikus A.11).”

ADIERAZTEN DUGU txostenean aipatzen diren 5 espedienteetatik 3 (Karpa, agertoki eta aulkien alokairua, Erregai-hornidura, Izurriteen kontrola) urte batetik bestera zenbateko oso desberdina duten kontratuak direla, eta horregatik zaila dela baldintza ekonomiko egonkorra ezartzea, nahiz eta lanean ari garen lizitazio bidez esleitzeko.

Beste 2 espedientei dagokienez, bat da Garabiko 5 langile birkolokatzeko Planaren Hitzarmena: prestakuntza eta orientazioa, eta ez da kontratu bat, Udalaren eta Oarsoaldea S.A.ren arteko hitzarmen bat baizik, eta ez dago kontratuen inguruko araudiaren mende.

Bosgarren kontratua, Galtzarabordako kiroldagiko gas hornidura, lizitatu eta esleitu da Udalaren gainerako instalazioekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren bidez.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

“Oarso Aldea, SAri industria-lurra sustatzeko emandako diru-laguntza izenduna Udaltzako 1997an onartutako hitzarmen batean oinarritzen da.”

ADIERAZTEN DUGU Udalak Oarsoaldeari egiten dizkion ekarpen guztiak mendeko entitate bati egindako transferentzia gisa egiten direla, haren jardura finantzatzeko, sozietatearen kudeaketan parte hartzen duen bazkide akziodun den aldetik, eta ez hirugarren –besteren– bategin egindako jarduerak sustatzeko dirulaguntza gisa.

Edonola ere, sozietatearen inbertsioekin lotutako udal-ekarpenenak beharbada justifikatu gabe egoteari eta egungo testua indarreko araudira –adibidez, 40/1995 Legea– ez egokitzeari dagokionez, alkateak itzultzeko espediente bat irekitzea erabaki du ekainaren 10ean, baita Hitzarmenean aurreikusitako Segimendu Batzorderako deialdia egitea ere, hura ebazte aldera.

